



IKASLEEN TXOKOA 1GO ZENBAKIA

# AEK euskaltegia

ASTIGARRAGA

Egileak: Astigarragako AEKko ikasleak



# «Barnetegiko esperientzia polita da. Familian bezala sentitzen naiz»

2025eko urtarrilaren 21ean Lazkaora joan ginen gure ikaskide Elena bisitatzera. Elena Maizpide barnetegian dago urtarrilaren 7tik. Lazkaora 13:30ean iritsi ginen. Elena justu klasetik atera zen. Besarkada handi eta potolo bat eman genion elkarri, eta Elena oparitxoak banatzen hasi zen. Euskaltegitik oinez oso gertu zegoen Orobione jatetxera joan ginen. Eguneko menu goxo bat bazkaldu genuen. Oso gomendagarria lekua. Bazkaldu ondoren, Elena elkarrizketatu genuen. Hementxe egin genituen galderak:

## 1-Zer moduz zaude?

Oso pozik nago. Esperientzia polita da. Familian bezala sentitzen naiz. Irakasleak (Pakea, Julen eta Aiora) oso jatorrak dira. Oso giro ona dago eta antolakuntza bikaina da.

## 2-Zergatik erabaki zenuen barnetegira etortzea?

Momentu eroa izan nuen. Gogoan nuen probatzeko. Jende guztiak esaten zuen "Maizpiden oso ondo!" eta animatu nintzen. Asko kostatzen zait euskaraz hitz egitea.

## 3-Zenbat denbora egongo zara hemen?

Momentuz bi hilabete. Hasieran hilabete bat pasatzeko asmoa nuen, urtarrila, baina otsaila ere hemen pasako dut. Jende gehienak hilabete bat baino gehiago pasatzen du barnetegian. Badago emakume bat urte osoa pasa duena hemen; eta beste gizon batek bi urte daramatza gutxi gorabehera.

## 4-Klaseak daukazu? Zenbat ordu pasatzen dituzu klaseetan?

6 ordu eta erdi gutxi gorabehera klaseetan. 7:45etik 8:45era gosaltzeko ordu bat dugu. 9:00etatik 11:00etara eskolak. 11:00etatik 11:30etara atseden. 11:30-13:30 eskolak. Ondoren bazkaria,

eta 16:00ak arte libre dugu. 16:00etatik 18:30etara berriz eskolak. Eta afaria 20:00etan da. Batzuetan, denbora libre dugunean, dantza egiten dugu, musika, ping-pong, zinema eta tailerrak.

## 5-Klasez kanpo, zer egiten duzu?

Paseatu, pintxo potera joan ostegunetan, kantatu, kirola egin, etxerako lanak, apunteak garbira pasa...

## 6-Lo hemen egiten al duzu?

Bai, eta oso ondo. Baina ostiraletan etxera joaten naiz.

## 7-Zenbat talde daude orain barnetegian?

Momentu honetan zazpi talde gaude.

## 8-Zure ikaskideak nongoak dira?

Zazpi gaude gure taldean: Errenteriako Agurtzane; Alex eta Jon iparraldekoak; Mor Senegalekoa; Samaniegoko Jorge; Gasteizko neska bat eta ni.

## 9-Zure irakasleak jatorrak dira?

Bai, oso. Aiora oso irribarretsu dago beti, oso guapa da, gainera. Julen rugbilari da. Oso jatorra ere. Eta Pakea ere oso oso jatorra.



## 10-Janaria goxoa al da?

Oso goxoa dago. Sukaldaria eta zerbitzaria ditugu. Entsaladak eta beti daude zuk hartzeko. Eta bazkaltzera jaisten garenean 4 lagunentzat hortxe egoten dira jarrira eltzeak dilistekin, babarrunekin... Bigarren platera ekartzen digute. Eta postrea nahi duguna hartzen dugu.

## 11-Logela indibiduala al daukazu?

Bai, oso ondo. 60 urtetik gorakoei logela indibiduala jartzen digute, edo arnasa hartzeko makina erabiltzen baduzu edo horiei ere bakar-kako logela ematen diete. Ni bakarrik nago. Oso ondo.

## 12-Hemengo irakasleak eta AEKkoak diferenteak al dira?

Ai ze konpromisoa! Klaseetan gramatika asko asko egiten dugu. Ez daukagu libururik, baina egunero 10 orri edo betetzen ditugu. Ez du denbora ematen plan guztia egiteko. Zerbait esplikatu eta berehala pum! ariketa egiten dugu. Hemengo irakasleak oso garbi hitz egiten dute. Erraz ulertzen zaie.

## 13-Etxeko lanak ba al daukazu?

Bai, asko! Biharko idazlan bat prestatu behar dut gero.

## 14-Asko hitz egiten duzue?

Ez hainbeste. Klasetik kanpo bai, baina klasean ez.

## 15-Asko abestu duzu?

Iparraldekoekin pila bat. Pintxo poteetan batez ere.

## 16-Errepikatuko zenuke esperientzia?

Bai, dudarik gabe.

## 17-Gomendatuko zenuke esperientzia?

Bai, guztiz.



# Astigarragako gazteek etorkizunean herrian bertan bizitzeko aukerarik izango al dute?

Astigarraga ikaragarri handitu da azken urteotan; 2024ko urtarrileko datuen arabera, 7623 biztanle bizi gara Astigarragan. Herrian barrena ibili besterik ez dago konturatzeko etxebizitza ugari egin dituztela, eta haur-parkeetara begiratu besterik ez dago konturatzeko lehen baino askoz haur gehiago bizi dela herrian. Gauzak horrela, Astigarragako AEKko B2 mailako goizeko taldean etorkizunari begira jarri gara, eta honako galdera honi erantzuten saiatu gara: Astigarragako gazteek etorkizunean herrian bertan bizitzeko aukerarik izango al dute? Paperera ekarri nahi izan ditugu gure ikasleen iritzia:



## ELI MARQUES

Nire ustez posible da; bakarrik proposamenak egin behar dira udaletxean, berak lurak bilatzeko eta, horrela, etxe berriak egiteko; eta prezioak merkeagoak izateko. Adibidez, etxebizitza sozialak. Horregatik, denon artean presioa egitea oso garrantzitsua da hori aurrera ateratzeko.



## SANDRA FERNANDEZ

Gero eta gazte gehiago joaten dira ikasketak egitera atzerrira, bizitza eta etxebizitza garesti dagoelako. Ez digute aurrezteko aukerarik ematen; berez, etxe bat erosteko behar den dirua gutxi batzuek dute. Etorkizunean Astigarragako gazteek herrian bizitzeko zailtasunak izango dituztela uste dut.



## SHANDRA IGLESIAS

Kontutan hartuta Astigarraga herri gaztea bihurtu dela azken aldi honetan eta gazteek oso erro sakonak dituztela hemen bizitza egiteko, nire ustez, bilatuko dituzte aukerak guztiak hemen gelditzeko. Nahiz eta momentuz posible ez ikusi etxe hutsak ez daudelako, etorkizunean ziur nago baliabide guztiak bilatuko dituztela jaino diren herrian geratzeko.



## OSCAR AGÜERO

Nik uste dut baietz, herritarren artean kontzientzia handia ari da hazten, urte batzuetan arazoa edukiko dugulako. Horregatik, pentsatzen dut lan egin behar dugula gure gazteen etorkizuna Astigarragan egon dadin.



## MIREIA COMPANY

Momentu honetan uste dut ezetz; ez daude etxebizitza nahikoak, ezta eraikitzeke lekurik ere. Agian, 10-15 urte barru aukera izango dute Astigarragan bizitzeko, egongo delako proiektua industrialdea elkartzeko eta etxebizitzak eraikitzeke.



## DANI GOMEZ

Nire ustez zaila izango da. Etxebizitzak oso garestiak dira. Ez dago lekurik etxe berriak egiteko. Gainera, jende gehiago bizi denez, gazteak beste leku batzuetara joango dira bere bizitza egitera.



## ESTHER GORJON

Nire ustez oso zaila da etxea aurkitzea. Ez dugu lurrik herrian, eta daukaguna oso garestia da. Gero eta zailagoa da ondo ordaindutako lanpostu on bat aurkitzea. Gure herriko udaletxeak ez baditu horrelako arazoak konpontzen, gure gazteak hemendik kanpo alde egingo dute.



## EDORTA PEREZ

Gaur egun, Astigarragako gazteek arazo handi bat dute etxebizitzekin. Etxe gutxi daude salgai, eta daudenak oso garestiak dira. Alokairuarekin berdin gertatzen da. Hortaz, udaletxeak lagundu beharko du gazteen etxebizitza baterako sarrerarekin. Normalean, bankuek bakarrik ematen dute etxearen balioaren % 80. Horregatik, udaletxeak eman beharko etxearen balioaren %20a, interesik gabe.



## KAROLAY RAMON

Uste dut gauro gazteek oso zaila izango dutela etorkizuna Astigarragan sortzeko. Alokairuen eta etxeen erosketen igoerak ezinezkoa egiten du gazteek Astigarragan bizitzeko etxebizitza bat aurkitzea. Aukera askorik ere ez dago eta donostiarrek pixkanaka etxe guztiak betetzen ari dira. Egia da, halaber, Astigarragaren hazkunde mailan, ikastetxeak, kiroldegiak, klinikak eta zerbitzu publikoak ez direla nahikoa hazten denei espazio eta arreta eskaintzeko.

# Mintzalagun taldeari galderak

**1) Normalean kafetxo batekin elkartzen zarete. Zein desberdintasun dago klasea eta mintzalagunaren artean? Zer nahiago duzu?**

Klasea ikasteko da eta Mintzapraktika praktikatzeko da: Biak gustatzen zaizkigu, baina desberdinak dira.

**2) Normalean zer gaiez hitz egitea gustatzen zaizue?**

Aktualitatea eta gai pertsonalak ere bai. Adibidez, Marian amona izango da eta talde osoa pozten gara.

**3) Mintzalagunetik zerbait aldatuko zenuke: forma, modua...**

Orain arte ezer ez. Oso ondo gaude.

**4) Nolako izan zen mintzalaguneko lehen eguna: urduri zeunden beldurtuta? Eta orain eroso zaudete?**

Lehen eguna lotsa pixka bat eta urduri geunden. Baina orain oso lasai gaude.

**5) Zenbat denbora pasatzen duzue? Denok hitz egiten duzue?**

Ordu bat astero. Bai, noski! Denok hitz egiten dugu!

**6) Euskara ikasten ari den pertsonari laguntzea beti ez da erraza izaten. Euskaldun guztiak dakite gaztelania. Nola laguntzen diozu euskaraz praktikatzea, gaztelania erabili gabe?**

Zalantzarik badago, denon artean saiatzen gara euskaraz argitzen. Ezin dugunean, Elhuyar edo Itzuli erabiltzen dugu.

**7) Mintzalaguneari emakume gehiago apuntatzen dira gizonak baino, zergatik uste duzue?**

Gure ustez, emakume gehiago daude euskaltegian ikasten, baina ez dakigu zergatik.

**8) Mintzalagunarekin lagunak egiten dira, baina maitasun harremanak ere bai?**

Ez dugu kasurik ezagutzen, baina posible


da.

**9) Zure ustez, mintzalaguna toki egokia da euskaraz lasai hitz egiteko? Zergatik?**

Bai, lasai gaude kafetxo bat hartzen lagunen artean.

**10) Gomendatuko zenuke? Zergatik?**

Bai, aukera ona delako euskara praktikatzeko: presarik gabe hitz egiteko aukera dago, giro onean, noski!



## Hizki-Zopa

### Sagardotegia

R	K	P	T	L	N	U	M	O	K	L
M	R	I	A	X	I	A	H	A	M	L
E	I	T	A	R	U	W	P	K	C	A
N	Z	X	Q	T	R	L	R	C	C	G
B	T	O	O	T	Z	I	E	L	H	U
R	N	R	D	I	X	A	L	T	O	N
I	O	I	R	T	F	O	G	L	A	B
L	L	Z	A	W	J	Z	T	F	A	U
L	A	O	G	H	O	C	E	X	P	F
O	D	Y	A	R	U	A	X	T	N	I
D	E	L	S	L	N	X	D	A	Q	D

